

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

53/2023 Foru Agindua, martxoaren 21ekoa. Arabako Jaiak kartelaren sariari buruzko erabakia eman behar duen epaimahaia izendatzea, San Prudentzio eta Estibalizko Andra Maria, 2023

Otsailaren 28ko 36/2023 Foru Aginduaren bidez onartu ziren Arabako San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mariaren 2023ko jaiak iragartzeko kartel lehiaketarako deialdia eta oinarriak.

Deialdiaren hamargarren artikuluan ezarritakoaren arabera, epaimahaia izendatu beharra dago.

Aztertu dugu Kultura Ekintza Zerbitzuaren buruak emandako txostena.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Festak, San Prudentzio eta Estibalizko Andra Maria, 2023 iragartzeko kartelaren lehiaketako epaimahaia izendatzea. Hara nortzuk izango diren epaimahaiko kide:

- Mónica Serentil Rubio.
- Elisabeth Palacios Negueruela.
- M. Lucía López Peciña.
- Alberto Otsoa Gutiérrez.

Epaimahaiko idazkari, Garbiñe Uriarte González jardungo da.

Bigarrena. Epaimahaikideek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-arrazoien eraginpean ez daudela adierazteko eta isilpekotasuna bermatzeko.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea, edozein interesdunek errefusatzeko eskubidea erabil dezan, lege ezarritako kasu eta baldintzetan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 21a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

M. INMACULADA SÁNCHEZ ARBE